

# Ruper Ordorika • Kantaria.

## «Autokritika hilik dago»

© Zure hainbat kantutako hitzen egile Bernardo Atxaga bahiketa baten ondorioz ezagutu zenuen.

Epaileak *Panpina ustela* argitalpena bahitu zuen, eta pertsona batek ale batzuk pasatu zizkidan, unibertsitatean sal nitzan. Salmentaren dirua eman nionean, galdetu zidan ea testuak zer iruditzen zitzaizkidan. Nik Bernardo Atxaga izeneko batek sinatzen zituen bi poemak oso onak zirela erantzun nion, eta berak Bernardo Atxaga bera zela esan zidan.

© Garai hartan gerora kultur munduan garrantzi handia eduki duten hainbat lagun ezagutu zenituen, Pott taldean Jon Juaristi, besteak beste. Zer iruditzen zaizu Espainiako Liburutegi Nazionaleko zuzendari izan arte egin duen bidea?

Nik 18 urte zituela ezagutu nuen, arrunt egoera ezberdinean. Egia esan behar badut, gertatu denak ez nau harritzen: litekeena zen haren zioek eraman duten tokira eramatea.

© Garai hartan, halaber, Ramon Saizarbitoria ezagutu zenuen. Hark dio euskal kulturaren autokritika falta nabaria dagoela.

Autokritika hilik dago toki guztietan. Euskal kulturaren ere hala izango da, baina zaila gertatzen zait orokorrean hitz egitea, bere txikitasunean euskal kulturak baduelako aniztasun handia. Denetarik dago, alegia.

© Pamielan lanean hasi zara. Esan didatenez, argitaletxeko katalogo osoa irakurtzen ari zara.

Ez da horrenbesterako. Normala denez, hainbat liburu irakurtzen ari naiz. Oraintxe Isidro Rekarteren *Desioen hiria*-rekin ari naiz.

© Idazteko asmorik bai?

Ezta batere. Interes gutxiko idazle asko dago ni ere horretan hasteko.

© Garai batean entseatzeko lokalean *Hemen soilik rock and rolla jotzen da* zioen kartela zeneukan eskegita. Kartel horrek bere tokian segitzen al du?

Ez. Eroriko zen noizbait. Lokalarekin ez dut kontu handirik izaten. Dena dela, niretzako rocka, beste ezer baino gehiago, jarrera bat da; herri musikaren aldaera bat, nire belaunaldiari eta, beraz, neuri egokitu zaiguna. Zentzu horrekin lotuta jarri nuen kartel hura.

© «Euskadin rock and rollak ez du inoiz dirurik emanen». Hertzainak taldearen *Ta ezer ez da berdin* kantuko leloa da. Haren grabazioan zuk koruak egin zenituen. Ezin esan sekula baino

hobeto kantatu ze- nuenik.

Ez, egia da. Nik ez dut neure burua interpretetzat. Ni egilea naiz, eta hortik ateratzen naizenean ez dut egokiera handirik. Dena dela, oso oroimen ona dut horretaz. Javi Zabalak eta Hertzainak taldekoek alboan eduki ninduten euskal kantariantzat hain gogorrak ziren garai haietan.

© Lelo harekin bat egiten al duzu oraindik?

Dudarik gabe. Baina hori bere proportzioan aztertu behar da.

© Betiko alkandora beltza bazterrean utzita, azken kontzertuetan koloredunak janzen ari zara. Hori dela kausa zeharo aztoraturik dabilen zure jarraitzaile amorratu batek arren, otoi eta faborez aldaketaren zergatiaz galdetzeko eskatu dit.

Batzuetan ematen du tokitxo bat ematen di- zutela eta ezin zarela hortik mugitu. Agian neure buruaren itxurarekin matxinatu naiz. Nik horri ez diot ga- rrantzirik ematen.

| Juan Kruz Lakasta |

---